



2019

URTEKO MEMORIA

GIPUZKOAKO SENDAGILEEN ELKARGO OFIZIALA
COLEGIO OFICIAL DE MÉDICOS DE GIPUZKOA

GIPUZKOAKO SENDAGILEEN ELKARGO OFIZIALA

Frantzia hiribidea, 12
20012 Donostia (Gipuzkoa)

HARREMANETARRAKO

Bulegoa: 943 276 300 / Fax: 943 321 788
E-posta: info@comgi.eus

ORDUTEGIA

Astelehenetik ostegunera: 9:00 - 13:00h. eta
15.00 - 18.00h.
Ostiraletan: 8.30 - 13.30h.

UDAKO ORDUTEGIA

Astelehenetik ostiralera: 08:30-13:30 h. eta
asteazkenetan: 08:30-17:30 h.



GIPUZKOAKO SENDAGILEEN ELKARGO OFIZIALA
COLEGIO OFICIAL DE MÉDICOS DE GIPUZKOA



Frantzia hiribidea, 12, 20012 Donostia (Gipuzkoa)
info@comgi.eus
www.comgi.eus
Diseinu eta maketazioa: didart.eu
Inprimaketa: Michelena Artes Gráficas s.l.
Donostia, 2020ko maiatza

ELKARGOKO LANGILEAK

Bulego teknikoa

Elena Irazusta
elena@comgi.eus

Edurne Cristti
edurne@comgi.eus

Aiora Perdiguero
aiora@comgi.eus

Estibalitz Peña
estibalitz@comgi.eus

Aholkularitza Juridikoa

Jon Pellejero
jpellejero@comgi.eus

Komunikazioa

Ana Soro
prensa@comgi.eus

Fundazioa

Ortzi Balda
coordinador@comgi.eus

2019

URTEKO MEMORIA

AURKIBIDEA

Presidentearen agurra	3
Elkargoa	5
Datuak	8
Jarduerak	20
Fundazioa 2019ko Memoria	33

01

PRESIDENTEAREN AGURRA

**2019A BEREZIKI ELKARGOAREN 120. URTEURRENAK
MARKATUTAKO URTEA IZAN DA, ILUSIO HANDIZ OSPATU DUGUN
EFEMERIDEA ETA LANEAN JARRAITZEKO INDARRA EMAN DIGUNA,
BAI ELKARGOAREN ALDERDI TEKNIKOAK OSATU ETA HOBETZEKO,
BAI FUNDAZIOTIK PRESTAKUNTZA-EKIMENAK BULTZATZEKO.**



D. Manuel García
Bengoechea

Urteurrenak balio izan digu lehendik geneukan uste bat berresteko: medikuntzaren alde gizatiarra berreskuratu eta indartu beharra dago. Ez alferrik, komunikazio kanpainak “medikuntza gizatiarrago baterantz” izenburua zeraman; izan ere, sendagilearen eta gaixoaren arteko harremanaren garrantzia aldarrikatu nahi izan genuen, batez ere. Horretarako, profesionalei zein herritarrei zuzendutako hainbat jarduera antolatu genituen (mahai-inguruak, hitzaldiak ...). Harreman horren garrantzia azpimarratzeko, bestetik, gure ustez bide onean jarriko gaituzten hamar gako bildu genituen dekalogo batean.

Testuingurua ez da erraza, garaiak aldatu egiten dira, eta haiekin batera errealitate sozial, ekonomiko eta politikoa. Baina jarraitu egin behar da, gaixotasunak ez du ulertzen soziologiaz, ekonomiaz edo politikaz. Funtsezkoa da aukeretan zentratzea. Henry Fordek esan zuen bezala, «Oztopoak begiak helmugatik kentzen dituzunean ikusten dituzun gauza beldurgarri

**Gure lehentasuna da
lanbidea hobetzea,
eta modu horretan
herritarren ongizateari
laguntzea.**

horiek dira». Beraz, gure lehentasunak eta helburuak argiak dira, lanbidea hobetzea, eta modu horretan herritarren ongizateari laguntzea.

Elkargoa, batez ere, jarduera medikoa eta profesionalaren nahiz pazientearen segurtasuna kontrolatzeko eta bermatzeko organoa da. Misio horrekin lotuta, 2019an bi lan-ardatz garatu genituen:

Alde batetik, uztaillean errezeta pribatuak paperezko euskarrian baliozkotzeko sistema jarri genuen abian. Sistema hori Medikuei, Farmazialari, Dentistak eta Podologoek Kontseilu Nagusiek bultzatzen dute, eta faltsutzea saihesten du, errezeta bera erabiliz sendagaiak behin eta berriz ematea eragozten du, gehiegizko edo iruzurrezko jardueren aurrean defentsa handiagoa eskaintzen du, eta pazienteei segurtasun handiagoa eskaintzen die.

Bestalde, Kode Deontologikoa eguneratzeko lanean jarraitzen dugu, ideiak ekartzen eta adostasunak lantzen jarraitzen dugu. Tarte hau aprobetxatu nahi dut Elkargoko Deontologia Batzordeari eskerrak eta zorionak emateko, erakusten duen aparteko inplikazio eta entregatik.

Dokumentu honetan 2019ko proiektu eta jarduera garrantzitsuenak jaso nahi izan ditugu, beste behin ere Elkargoaren egunerokotasuna eta zentzua lankideei eta gizarteari, oro har, hurbiltzeko.

02

ELKARGOA

EGITURA

GOBERNU BATZORDEA

Une honetan, ondorengo kideek osatzen dute Gipuzkoako Sendagileen Elkargoko Zuzendaritza Batzordea:



Manuel García Bengoechea LEHENDAKARIA	Victor Irigoyen Murua DIRUZAINA/KONTULARIA	Ander Letamendia Loinaz BATZORDEKIDEA
Valentín Collado Espiga LEHEN LEHENDAKARIORDEA	Iruñe Alzola Elizondo BATZORDEKIDEA	Belén López Rubio BATZORDEKIDEA
Ignacio Eizaguirre Sexmilo BIGARREN LEHENDAKARIORDEA	Carlos Benito Gómez BATZORDEKIDEA	Xanthe Luna Harvey BATZORDEKIDEA
María Belén Alonso Macías IDAZKARI OROKORRA	María Emma del Campo Pena BATZORDEKIDEA	Iñaki Sanz Esquiroz BATZORDEKIDEA
María Aranzazu Elicegui Sarobe IDAZKARIORDEA	María Asunción Guerra Alonso BATZORDEKIDEA	Carmen Solórzano Sánchez BATZORDEKIDEA

BATZORDE IRAUNKORRA

LEHENDAKARIA: Manuel García Bengoechea
LEHEN LEHENDAKARIORDEA: Valentín Collado Espiga
BIGARREN LEHENDAKARIORDEA: Ignacio Eizaguirre Sexmilo
IDAZKARI OROKORRA: María Belén Alonso Macías
IDAZKARIORDEA: María Aranzazu Elicegui Sarobe
DIRUZAINA/KONTULARIA: Victor Irigoyen Murua

DEONTOLOGIA BATZORDEA

Deontologia Batzorde honen helburua (Elkargoaren Estatutuetak 36. artikulua arabera) Gobernu batzordeari laguntza eta aholkularitza ematea da, elkargokideei arau korporatiboak eta profesionalak betetzeko eta beteazteko duten obligazioaren baitan.



Aipatutako helburu horiek bete daitezzen beharrezkoak diren txosten eta ikerketa guztiak eskuratuko dizkio Batzorde Iraunkorrek Deontologia Batzordeari, eta honek, txostenak eta ikerketak aztertu ondoren, bere konklusio eta ondorioen berri emango dio Gobernu Batzordeari. Hori izanik ere Deontologia Batzordearen egitekoa, alegia Gobernu Batzordeari aholku ematea, bere konklusioak eta irizpenak ez dira lotesleak izango Gipuzkoako Sendagileen Elkarteko Gobernu Batzordearentzat.

Deontologia Batzordea hilean behin elkartzen da, dela medikuren baten kontra jarritako kexaren bat aztertzeko, edo baita Etika medikoarekin zerikusia duten gaiak jorratu eta azterketa horretatik ateratako ondorioekin dokumentu bat argitaratzeko.

2018ko irailean berritu zen Elkargoko Deontologia Batzordea, eta geroztik horrela geratu da osatua:

Deontologia Batzordea osatzen duten kideak

LEHENDAKARIA: José Manuel Maiz Urretagoyena

IDAZKARIA: María Aranzazu Albisu Otaño

BATZORDEKIDEAK: Jaione Argaya Orbegozo, Tomás Burutaran Usandizaga, José Manuel Santos Zarza, María Ángeles Zalakain Mendizabal, María Mercedes Lasa Garmendia


03

2019KO DATUAK

ELKARGOKIDETZEAK


ELKARGOKIDEAK (2019 / 12 / 31)

4.272




Emakumezkoak: 2.364 Gizonezkoak: 1.908

LANEKO EGOERA



Jardunean
Jubilatuak
Langabezia

JARDUERA-MOTA




Medikuntza sektore publikoan
Medikuntza sektore pribatuan
Medikuntza mistoa

ESPEZIALITATEA	GUZTIRA		
Alergologia	€	9	18
	G	9	
Analisi Klinikoak	€	32	44
	G	12	
Analisi Klinikoak eta Biokimika klinikoa	€	0	0
	G	0	
Anatomia Patologikoa	€	13	24
	G	11	
Anestesiologia eta erreanimazioa	€	104	169
	G	65	
Angiologia eta kirurgia baskularra	€	6	16
	G	10	
Digestio-aparatua	€	35	67
	G	32	
Biokimika klinikoa	€	1	1
	G	0	
Kardiologia	€	13	56
	G	43	
Kirurgia Kardiobaskularra	€	2	7
	G	5	
Kirurgia Orokorra eta Digestio-aparatua	€	35	118
	G	83	
Ahoko Kirurgia eta Maxilofaziala	€	2	11
	G	9	
Kirurgia Ortopedikoa eta traumatologia	€	20	135
	G	115	
Kirurgia pediatrikoa	€	3	10
	G	7	
Kirurgia plastikoa, erreparatzailea eta estetikoa	€	8	19
	G	11	
Kirurgia torazikoa	€	0	8
	G	8	
Dermatologia Mediko-Kirurgia eta Benereologia	€	22	35
	G	13	

ESPEZIALITATEA	GUZTIRA		
Endokrinologia eta nutrizioa	€	16	24
	G	8	
Estomatologia	€	39	112
	G	73	
Farmakologia klinikoa	€	1	1
	G	0	
Genetika klinikoa	€	0	0
	G	0	
Geriatría	€	10	26
	G	16	
Hematologia eta hemoterapia	€	49	65
	G	16	
Hidrologia medikoa	€	3	3
	G	0	
Immunologia	€	1	4
	G	3	
Laneko Medikuntza	€	66	131
	G	65	
Gorputz-Hezkuntzako eta Kirol Medikuntza	€	7	33
	G	26	
Familia eta Komunitateko Medikuntza	€	650	946
	G	296	
Medikuntza fisikoa eta errehabilitazioa	€	31	48
	G	17	
Medikuntza Orokorra	€	579	992
	G	413	
Akreditatutako Medikuntza Orokorra	€	4	8
	G	4	
Medikuntza Intentsiboa	€	32	58
	G	26	
Barne Medikuntza	€	70	187
	G	117	
Lege eta Auzitegi Medikuntza	€	4	9
	G	5	
Medikuntza Nuklearra	€	3	7
	G	4	

ESPEZIALITATEA	GUZTIRA		
Prebentzio Medikuntza eta Osasun Publikoa	€	12	23
	G	11	
Mikrobiologia eta parasitologia	€	12	22
	G	10	
Nefrologia	€	13	25
	G	12	
Neurologia	€	20	44
	G	24	
Neurokirurgia	€	2	15
	G	13	
Neurofisiologia klinikoa	€	3	8
	G	5	
Neurologia	€	20	55
	G	35	
Obstetrizia eta Ginekologia	€	95	149
	G	54	
Oftalmologia	€	36	77
	G	41	
Onkologia Medikoa	€	22	29
	G	7	
Onkologia Erradioterapikoa	€	10	23
	G	13	
Otorrinolaringologia	€	17	53
	G	36	
Pediatria eta bere esparru guztiak	€	155	238
	G	83	
Psikiatria	€	83	145
	G	62	
Haur eta nerabeen psikiatria	€	0	0
	G	0	
Erradiodiagnostikoa	€	54	115
	G	61	
Erreumatologia	€	8	22
	G	14	
Urologia	€	9	47
	G	38	

ELKARGOKIDETZEEN EBOLUZIOA, AZKEN HAMAR URTEOTAN (2009-2019)



2019KO ELKARGOKIDETZEETAN IZANDAKO MUGIMENDUAK

↑ **ALTAK: 210** ↓ **BAJAK: 105**

- Beste probintzia batera: **64**
- Atzerrira joateagatik: **10**
- Jarduera uzteagatik: **13**
- Hildakoak: **18**



MEDIKU OHOREZKOAK ETA JUBILATUAK: 106

2019KO OHOREZKO MEDIKUA: JOSÉ LEÓN NAVARRO ARMENDÁRIZ JN.

2019KO MEDIKU OHOREZKOAK

- Aguirregaviria Zabaleta, José Ignacio
- Alegría Ezquerro, Eduardo
- Alonso Del Palacio, David
- Altares Cisneros, María Del Rosario
- Arana García, Jesús
- Aranjuelo Berraondo, María Elena
- Aristondo Gorosabel, José Ignacio
- Arratibel Fuentes, María Carmen
- Arrese Nazabal, José Luis
- Arruti González, J. Javier
- Artundo Ramos, Teresa
- Asensio Arribas, Clara María
- Astudillo Alarcón, Alex Wilson
- Ayerdi Salazar, Santiago
- Ayestarán Eguiguren, Eduardo
- Azcue Gabilondo, Mikel
- Balbas Cisneros, María Jesús
- Bedia Arregui, José
- Blanco Linder, Lourdes
- Blarduni Cordón, Elizabeth
- Carrera Macazaga, Jesús María
- Carrillo Granel, Juan
- Dorronsoro Achaval, Juan
- Eizaguirre Altuna, Luisa
- Fernández Aguirre, María José
- Fuentes Biggi, Joaquín
- Gorostegui Echave, María Jesús
- Goyeneche Paternain, Jesús María
- Iraundegui Arzallus, Miguel
- Juaristi Ortuoste, Miren Jasone
- Lanas Lecuona, Manuel
- Larraz Del Arco, Jesús
- Lasa Isasti, Ramón
- Loidi Fdez. De Trocóniz, María Blanca
- López García, Juan A.
- Lucía Capdevila, Guadalupe
- Maisueche Arrillaga, Ignacio
- Marco Melero, Francisco
- Martínez Sein, Pedro
- Mateu Badía, Francisco
- Mendiburu Pérez, María Isabel
- Moriano Béjar, María Esperanza
- Múgica Casares, Fco. María Serapio
- Ona Ochoa, María Aurora
- Ortiz de Urbina González, Fernando
- Osa Echevarría, María Ildelfonsa
- Pons Mate, Enrique
- Puyadena Corta, Ignacio Javier
- Rezola Solaun, María Victoria
- Romero Collazo, María Carmen
- Rubio Fernández, José Félix
- San Emeterio Fernández, Isabel
- Sánchez-Guardamino Ferrer, Javier
- Serrano Bengoechea, María Esther
- Soga García, Elvira
- Tamayo Aguirre, Eduardo
- Tolosa Oyarbide, Marcos
- Torán García, Luisa
- Trecet Martínez Ilarduy, Juan Cruz
- Urquizu Iturrarte, María Coro
- Villamor Sarasqueta, Esther
- Villar Vázquez, Juan Ignacio
- Zulueta Lizaur, Agustín

2019AN HILDAKOAK:

1. Leandro Martín Santos (2019.01.05)
2. Iñaki Garmendia Goicoechea (2019.01.09)
3. Luis Pérez Duarte (2019.02.06)
4. Cristina Aznar Plana (26.02.2019)
5. Alfonso Giménez Echeverría (2019.04.17)
6. José María Ugarte Aguirre (2019.05.02)
7. M^a Amalia Paz Pailhez (2019.05.14)
8. Luis Miguel Querejeta Casares (2019.06.05)
9. Alazne Aintzane Manero Aramburu (2019.06.17)
10. José María Irigaray Urrutia (2019.07.28)
11. Francisco Javier Fúnez Pedros (2019.09.24)
12. Gregorio Irastorza Iribas (2019.09.27)
13. Gregorio (Goyo) Yarza Guridi (2019.10.01)
14. José M^a Zubeldia Beloqui (2019.10.01)
15. Alejandro Michelena Imaz (2019.10.01)
16. Juan M^a Goñi Marqués (2019.10.02)
17. Fernando Larrañaga Lanas (2019.10.06)
18. María Pilar Núñez Angulo (2019.11.13)

ELKARGOKO KUOTA

Oraindik ere bere horretan mantentzen da 2015eko martxoaren 4ko Batzar Orokorrean onartu eta 2015eko apirilaren 1etik aurrera ezartzea erabaki zen elkargoko kuota bera:

Elkargoko Kuota	60 €
Umezurtzen eta Babes Sozialeko Patronatua Fundazioa (aukerakoa)	23,77 €
GUZTIRA, hiru hilekoan	83,77 €
Mediku egoiliarrentzako kuota (lizentziaturaren osteko lau urteetan)	
Elkargoko Kuota	28 €
Umezurtzen eta Babes Sozialeko Patronatua Fundazioa (aukerakoa)	23,77 €
GUZTIRA, hiru hilekoan	51,77 €

ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA

2019an AMA etxearen poliza aurreko ekitaldiko maila berean mantentzen da, aurtengoa izanik kontratua amaitzen den urtea.

- Bajak 2019-12-31n: **137** elkargokide
- Altak eta gehikuntzak 2019an: **204** elkar-gokide
- Aseguratuak 2019an: **2.684** elkargokide

GUZTIRA: **18** HILDAKO 2019AN

ELKARGOKIDEARENTZAKO ZERBITZUAK

Medikuak elkargokide egitea nahitaezkoztat jotzen zuen Errege Agindua argitaratu zenetik urtebetera, 1899ko apirilaren 20an alegia, osatu zenetik, Gipuzkoako profesional mediko guztiei medikuntzaren jardueran aritzeko laguntza eta erraztasun guztiak eskaini nahi dizkie Gipuzkoako Sendagileen Elkargo Ofizialak (COMGI), jardun egoki hori pazienteen eta gizarte osoaren mesederako izan dadila bermatzeko asmoz betiere.

ELKARGOKIDEARI ESKAINITAKO ZERBITZUAK



BULEGO TEKNIKOAK ETA BIRTUALA

Elkargokideek euren jarduera profesionalaren inguruan izan ditzaketen beharrian guztiei Elkargoko bulegotik ematen zaie erantzuna. Bulego teknikoaz gain, bada Elkargoko web-orrian beste bulego birtual bat, eta bertan elkargokideak modu erraz eta bizkorrean egin ditzake izapiderik gehienak.



AHOLKULARITZA JURIDIKOA

Elkargoko Aholkularitza Juridikotik, Carlos Pellejero eta Jon Pellejero abokatuek aholkularitza juridikoa eskaintzen diete horren premian dauden elkargokide guztiei, Elkargoaren organo guztiei ere (Gobernu Batzordea, Batzorde Iraunkorra, Deontologia batzordea, etab.) aholkua eta laguntza emateaz gain.

AHOLKULARITZA JURIDIKOAREN DATUAK 2019AN

ELKARGOKO EGOITZAN IZANDAKO JARDUERAK	
Batzordearen txosten juridikoak eta kontsultak, idatziz	19
Txosten juridikoak, medikuaren eskariz eginak	16
ELKARGOKIDEEI ESKAINITAKO AHOLKULARITZA	
Aurrez aurreko kontsulta pertsonalak, Elkargoaren egoitzan	368
Berlaratu gabeko kontsultak / e-mailak (jasoak eta bidaliak, gutxi gorabehera)	600
Berlaratu gabeko kontsultak / telefono bitartez (jasoak eta bidaliak, gutxi gorabehera)	783
Irekikito espedienteak: Egindako kontsulten ondorioz hainbat espediente ireki dira formatu fisikoan, jorratutako auzi horien izapidetzea/erreklamazioa/erantzuna bideratzeko	206
Medikuen kontra jarritako kenak	22
JARDUKETA JUDIZIALAK	
Lean-arloko Jurisdikzioa	28
Administrazioko Auzien Jurisdikzioa. (Osakidetza)	23
JURISDIKZIO ZIBILA ETA ZIGOR-ARLOKOA / ERREKLAMAZIOAK / ERANTZUKIZUN PROFESIONALEKO EPAIKETAK	
Demandaren aurreko jarduketak	17
2019. urtean izapidetan zeuden auziak	10
2019. urtean ebazitako auziak	8
Itunak	2



ESKAINITAKO BESTE ZERBITZU BATZUK

- Elkarre profesionalak eratzea eta altak
- Aholkularitza diziplinazko espedienteetan
- Altak Ekonomia Jardueren gaineko Zergan, jarduera pribatuari ekiten dioten medikuentzat
- Kontsultako altak, osasun-arloan
- Altak, Osasun Publizitateko Erregistroan

KEHETASUNAK, 2019. URTEA

Aurreko urteko egoera bera mantentzen da, hau da, medikuen aurka aurkeztutako salaketa kopurua txikia da; eta erreklamatutako zenbatekoak altuak izaten jarraitzen dute. Beraz, berretsi egiten da Elkargoak Erantzukizun Zibileko Aseguruaren gutxieneko zenbatekoa 300.000 eurora igotzeko hartutako erabakia egokia izan zela.

Lehenago jakinarazi den bezala, igoera hori zirkulazio-istripuetarako baremo berria (35/2015 Legea) indarrean sartzearen ondorio da, eta osasun-erantzukizuneko kasuetan ere aplikatzen da. Orain-tsu hasi gara haren aplikazioa nabaritzen; izan ere, 2016ko urtarrilaren 1ean jarri zen indarrean, eta data horretatik aurrerako gertaerarako aplikatzen da. Gertaerak gertatu eta ondorioak egonkortzen direnetik osasun-erantzukizunagatik erreklamazio bat jartzen den arte igaro ohi den denbora kon-tuan hartuta, esan daiteke 2019tik aurrera aplikatu ahal izango dela.

Medikuek jasandako erasoei dagokienez, bi salaketa izapidetu dira, eta aurreko urteetako batekin jarraitzen da. Indarrean zegoen laugarren bat artxibatu egin da, akusatua jada ez dagoelako lurralde nazionalen.

Azkenik, medikuen elkargoaren webgunearen bidez jakinarazitako erasoak, gertakariak salatu nahi ez diren kasuetakoak, aurreko urteetako zenbaki berberetan mantentzen dira (5). Ikusten da eraso horiek jakinarazi dituzten medikuek hala egin dutela, egitateak jasota gera daitezen, nahiz eta uste izan egitate horiek ez zutela merezi zigor-arloan salatzea

BABES SOZIALA

OMC-ren Babes Sozialerako Fundazioa

Elkargoan laguntzak eskaintzen zaizkie, Fundazio honen bitartez, premia gehien duten elkargokideei edota horien senideei. Lanbide medikoa osatzen duten kideek eta horien familiek izan ditzaketen premia eta beharrian larrienei eta oinarritzkoenei, direla izaera sozialekoak, hezkuntza-mailakoak nahiz osasun-alorrekoak, kasu egin eta erantzuna ematea da Fundazioaren eginkizun nagusia, sistema publikoak eskainitako laguntzen osagarri moduan, gizarte-mailan gerta daitezkeen arriskuei modu integrean aurre egin ahal izateko aukera emango dieten prestazio, programa eta zerbitzuen bitartez.

GIPUZKOAKO DATUAK

Gipuzkoan 2.783 dira euren borondatez Fundaziora atxikiak dauden elkargokideak, 271.833,75 €-koa izanik elkargokide horiek urtero Fundaziora egiten duten ekarpena. Ekarpen horri esker, laguntza hauek eman dira 2019an:

- Gipuzkoako mediku elkargokideen 23 gazte umezurtzek 87.372,10 euroko laguntza jaso zuten guztira iaz aipatu Patronatu horren eskutik. Patronatuak bi eratako laguntzak dauzka eratuak umezurtzentzako: 21 urtez azpikoentzako laguntzak, batetik, eta ikerketa-bekak adin horretatik aurrera ere ikasten jarraitzen dutenentzako, bestetik. 21 urtez azpiko 12 gaztek eta 21 urtetik gorako batek (3 hilabetez) laguntzak jaso zituzten, diru-laguntza guztira 51.490,10 €-koa izanik. Eta 21 urtetik gorako 10 gaztek ikasketa-beka bana jaso zuten, izanik diru-laguntza guztira 35.882,00 €-koa.
- 16 pertsonak jaso zuten gizarte-babeseko laguntza: desgaitasuna zuten 7 umezurtzek, izanik

diru-laguntza guztira 45.864€-koa; desgaitasuna zuten 3 medikuk, izanik diru-laguntza guztira 18.388,88 €-koa; 3 mediku jubilatuk, 24.051,78€ guztira; alargun batek hiru hilabetez, 2.283€ guztira; eta adin txikiko batek (0-6 urte) 1.243,85€ko laguntza. Laguntza sozialen kopurua, beraz, 93.335,51€-koa izan zen guztira.

Fundazioaren kuota hori borondatezkoa bihurtu zenetik, elkargokide batzuk baja eman dute zerbitzu horretan, eta elkargokide egiten diren profesional berri gehientsuenek ere uko egiten diote zerbitzu horretan parte hartzeari. Horregatik, azken 2 urteotan nabarmen jaitsi da alde horretatik jasotako diru-kopurua.

Gipuzkoako Sendagileen Elkargotik bereziki azpimarratu nahi genuke duela 100 urte baino lehenagotik hasita Fundazio honek profesional medikoei nahiz horien familiei premiarik gehien duten une larrietan laguntza bikaina eskainiz egindako lan eskerga.

KOMUNIKAZIOA

Elkargoko komunikazio-sailetik egunero aritzen gara lanean elkargokide guztiei informazio ego-
kia eskaini ahal izateko, beren jarduera profe-
sionalarekin eta elkargoko jarduerarekin lotuak
dauden gaitan (Erantzukizun Zibileko aseguru-
a, abisuak, titulazioa, araudiak...) eta baita interes-
garriak iruditzen zaizkigun beste gai batzuetan
ere: jardueren agenda, gaurkotasuneko gai me-
dikoak, enplegua, osasun-alertak,...

OHIZKO EUSKARRIAK

WEB: www.comgi.eus

Hauxe da, hain zuzen ere, elkargokideek gehien erabiltzen duten kanala, lana bilatzeko bezala baita ikastaroen edo izapide burokratikoen berri izateko ere. Elkargoaren webgunea une oro eguneratzen da (albisteak, enplegua, alertak, ikastaroak, jarduerak...), etengabe berrituz eta hobetuz doan heinean.

BULETIN ELEKTRONIKOAK

- **AGENDA buletin elektronikoa:** Astelehene-tan bidaltzen den buletin honetan jasotzen dira Elkargoko jarduerak, eta baita interesgarriak diren beste jarduera batzuk ere.
- **GAURKO GAIAK buletin elektronikoa:** Asteaz-kenetan bidaltzen den buletina. Gaurkotasun han-diko osasun-alorreko gaien hautaketa bat jasotzen da bertan, lehentasuna emanez komunikabide espezializatuiei.
- **MEDIKUEN AHOTSA buletin elektronikoa:** Hilabete-amaieran bidaltzen den buletina. Bertan jasotzen dira azken asteetan aldizkarian jorratuta-ko edukiak: erreportajeak, elkarrizketak, presiden-tearen editoriala, etab.
- **Abisua:** Elkargoak hala deritzonean, buletin berezi bat bidaltzen da izaeraz administrazio-ko la-narekin lotuagoak dauden albisteen berri emateko (aholkularitza juridikoa, aseguruak, elkargokide-tzea...).
- **Gonbidapenak:** Fundazioetik antolatzen den tre-bakuntzako ekintza bakoitzeko online gonbidapen bat sortzen da, eta elkargokideei bidaltzen zaie, jarduera horren berri izan eta ikastaroan izena erraz eta modu bizkorrean emateko modua eduki dezaten.



ALDIZKARI DIGITALA

Medikuen Ahotsa aldizkaria Gipuzkoako medikuei zuzendua dago, eta hilero-hilero geure elkargokideentzat interesgarriak diren edukiak sortzen jarraitzen du. Elkargoan egiten diren jarduerak (editorialak, Batzorde desberdinetan jorratutako gaien laburpenak, ekitaldi instituzionalak...) bildu eta horien berri emateaz gain, geure lurraldearen errealitate medikoa eta baita bertako profesionalak hobeto ezagutzeko aukera emango duten erreportajeak eta elkarrizketak ere egiten dira aldizkarian.


SARE SOZIALAK

Elkargoaren sare sozialetan eduki interesgarriak hedatzeko lanean jarraitu dugu. Horrela, 2018an jarri zen estreinakoz Instagram sarea, ohikoak diren Twitter, Facebook eta LinkedIn sareekin ere jarraituz.

Aurrekoaz gain, materiala ikus-entzunezko formatuan ere lantzen da, esate baterako Gipuzkoako medikuei egindako elkarrizketak, txostenak edo ekitaldien laburpenak, Elkargoaren youtube-ko kanalean ikus daitezkeenak.

EKINTZAK KOMUNIKABIDEETAN

Elkargoak etengabeko harremana dauka hedabide eta komunikabideekin, bertakoein bezala baita espezializatuagoekin ere, hiritarrentzat interesgarriak deritzegun gaiak zabaltzeko eta horien berri emateko. Hedabideek egindako eskaerei ere erantzuten diegu, beraiek lantzen dituzten gaien inguruan informazioa eta/edo harremanetarako pertsonak eskaintzeko.



04

2019KO JARDUERA



120. URTEURRENA

2019an, Elkargoa bere 120. urteurrenaren ospakizunetan murgilduta egon zen, “Medikuntza gizatiarrago baterantz” lelopean egindako komunikazio-kanpainaren ardatz nagusia izan zena. Kanpainaren bidez, medikuaren eta pazientearen arteko harremanaren garrantzia aldarrikatu nahi izan zen, Gipuzkoako gizarteko lau aurpegi ezagunen testigantzak baliatuta: Eva Argiñano sukaldaria, Angel Lertxundi idazlea, Xabi Prieto futbolaria eta Isabel Zapardiez moda diseinatzailea. Lau protagonistek, pazientearen roletik, medikuaren figurak bere bizi-esperientzietan izan duen garrantziaz hitz egin zuten: gaixotasunak, galerak, zalantzak eta kezak, egunerokoaren harremana. Lau testigantzak bideoan jaso ziren eta gure ohiko hedabideetan zabaldu genituen.

Bai aurkezpenean, bai 120. urteurrenarekin zerikusia duen guztian, medikuntzaren deshumanizazioari buruzko gogoeta egin eta partekatu

nahi izan zen. Prozesu konplexu horrek hainbat faktoreekin du zerikusia: teknologia berriak, burokratizazioa, osasun-sistema asetua, lan-prekarietatea ...

Presidenteak aurkezpenean esan zuenez, “Deshumanizazio horren ondorio kezagarria medikuaren eta pazientearen arteko harremana hoztea da, eta hori ahalik eta azkarren berreskuratu behar dugu, horretarako da kanpaina hau”. Hala azaldu zuen Garcia Bengoechea doktoreak: “Harreman hori izan da, antzinatik, medikuntzak bere helburuak lortzeko bide nagusia. Laguntza garrantzitsuena aurrez aurrekoan gertatzen da, pazientearen eta medikuaren arteko elkarriketan; hau da, medikuaren eta pazientearen arteko harremanak berak ekartzen dio, askotan, hobe-kuntza terapeutikoa pazienteari, eta, gainera, diagnostiko klinikoaren oinarri izan ohi da sarri, proba osagarrien beharra murrizten baitu”. Azpi-

marratu zuen denok, profesionalek, erakundeek, enpresek eta pazienteek borroka egin behar dugula harreman hori babesteko, hori baita “Medikuntzaren funtsa”.

Kanpainarekin batera, Medikuen Elkargoak dekalogo bat argitaratu zuen, arreta mediko gizatiarragoa lortzeko bidean aurrera egiteko. Besteak beste, osasun sistema hobetzea proposatzen zen, mediku profesionaleri baliabide eta denbora gehiago emateko, medikuntza fakultateetan prestakuntza humanistikoa berreskuratzeko eta abar.

Urteurrenarekin lotutako jardueren programari ekainaren 21ean eman zitzaion hasiera, medikuntzaren humanizazioari buruzko mahai-inguru batekin; bertan parte hartu zuten Elkargoko idazkari Belen Alonso doktoreak, Enrique Samaniego doktoreak eta Blanca Morera doktoreak.

Irailaren 12an bigarren mahai-ingurua egin zen, eta bertan Jose Luis Paulin Seijas doktoreak eta Angel Lertxundi idazleak hartu zuten parte.

Urriaren 11n ospatu zen, urtero bezala, Medikuen Eguna. Bertan izan ziren Serafín Romero, OMCko presidentea, eta Nekane Murga, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailburua. 2019ko ohorezko medikuei diplomak eman zitzaizkien, eta José León Navarro Armendariz jauna omen-du zen. Gainera, 120. urteurrena zela eta, urrezko bi domina eman zituen Elkargoak, bata Onkologikoari eta bestea Diego Murillo doktoreari, A.M.A. Aseguruen sortzaile eta A.M.A. Vida eta A.M.A. Fundazioko presidenteari.

120. urteurreneko jarduerekin amaitzeko, urriaren 14an zainketa aringarriei buruzko mahai-ingurua egin zen, Zainketa aringarrien Egunarekin bat eginez.



ELKARGOKO EKITALDIAK

BAMEn harrera

Urtero bezala, Elkargoak ongietorria eman nahi izan zien Unibertsitatean ikasketa-urte luzeak egin eta BAME azterketarako beste prestaketa-urte bat eman ondoren, beren egoitza-aldia Gipuzkoan hasi zuten gazteei. 2019. urtean 95 izan ziren euren egoitza gure lurraldean hasi zuten mediku gazteak. Beraien zalantzak eta kezak argitu eta mokadu goxo batez gozatzeko aukera izan zuten guzti-guztiek ongietorri ekitaldian.

Medikuaren Eguna

Urrian Elkargoan egindako ekitaldi polit batean, 2019ko ohorezko medikuak bildu ziren, eta omenaldia egin zitzaion José León Navarro Armendariz doktoreari. Elkargoaren 120. urteurrena zela eta, 2019an, bi urrezko domina banatu zituen: bata **Onkologikoari** eta bestea **Diego Murillo doktoreari, A.M.A. Seguros-en sortzailea eta A.M.A Vida eta A.M.A. Fundazioaren presidenteari**. Eguna San Telmo Museoa egindako afari batekin amaitu zen.

Eguberri festa

Abenduan ospatu zen Eguberri Festa Elkargoan, ohikoa den bezala, elkargokideen seme-alabei zuzendutako ekitaldiarekin. "Iparraldeko Norman" film-emanaldiarekin eman zitzaion hasiera ekitaldiari, eta jarraian Eguberriko Zorion-txartelen eta Gabonetako Apaingarrien lehiaketan sariak banatu ziren. Azkenik, txokolatada bat eta ustekabeko opari ugari banatu ziren bertaratutako guztien artean.



ELKARGOKIDEENTZAKO JARDUERAK

Fundazioak antolatutako trebakuntzako ikastaroez gain, eta horiek zehatz-mehatz zerrendatzen dira Fundazioari eskainitako atalean, Elkargoak beste hainbat jarduera ere antolatu ditu 2019an zehar, adibidez:

ZINEMA & OSASUNA HAUR GELA SAIOA TOLOSAN, PERTSONA NAGUSIEI ZUZENDUTA

Urtarrilaren 30ean, Zinema & Osasuna Haur Gelako saioa Tolosara joan zen, zehazki Topic-era, non, Mugi eta Tolosako Udalarekin elkarlanean, **UP** filma proiektatu zen. Jarraian, Alonso doktoreak, bere Minia txotxongiloarekin batera, adinekoei egokitutako osasunari buruzko hitzaldia eskaini zuen.

EGUBERRITAKO ZORION-TXARTELEN ETA APAINGARRIEN LEHIAKETA

Seigarren urtez jarraian, Eguberritako Zorion-txartelen lehiaketa antolatu zuen Elkargoak, eta lehen urtez Gabonetako apaingarriena. Sarien banaketa abenduaren 13an izan zen, Elkargoan antolatu ohi den Eguberritako Festarekin batera. Hauek izan ziren lehiaketen irabazleak:

EGUBERRITAKO ZORION-TXARTELAK:

Haurren kategoria (4-8 urte): Aroa Santon Urreta. 8 urte.

Gazteen kategoria (9-12 urte): Ariane Mayo Perez. 9 urte.

GABONETAKO APAINGARRIEN LEHIAKETA:

8-12 urteko kategoria: Lexuri Alday Arias. 8 urte.

13-18 urteko kategoria: Ez zen lehiakiderik izan.



JARDUERA IREKIAK

ZINEMA & OSASUNA HAUR GELA

2018ko irailan jarduera berri bat jarri zen martxan: Zinema & Osasuna Haur Gela izenekoa. Hiritarrei, eta zehatzago esateko etorkizuneko helduei (umeei, alegia) heziketa sanitarioa eskaintzea da egitasmo honen helburua. Hilero, aurreneko ostira-lean (jai-eguna edo zubia denean izan ezik) etxeko txikienei zuzendua dagoen film bat proiektatzen da Elkargoan, geure osasun fisiko eta emozionalarekin lotua dagoena betiere, eta emanaldiaren ostean solasaldi labur bat egiten da, umeengan pentsatua bereziki, filmean ikusitako ideiak edo kontzeptuak lantzen laguntzeko. Solasaldia Elkargoko idazkaria den Belén Alonso medikuak gidatzen du, bera ere medikua den txotxongilo baten laguntzarekin, haurreko harremana erraztu eta bideratzeko.

2019. urtean 9 film proiektatu ziren:

- otsailaren 1ean: WALL-E
- martxoaren 1ean: RIO
- apirilaren 12an: OSMOSIS JONES
- maiatzaren 10ean: HARRI ZOPA (euskaraz)
- ekainaren 7an: ETXE MAJIKOA (euskaraz)
- irailaren 6a: LOS INCREIBLES
- urriaren 3an: BUSCANDO A NEMO
- azaroaren 8an: COCO
- abenduaren 13an: IPARRALDEKO NORMAN (euskaraz)



SENIOR IKASGELA MEDIKOA

Aurten ere bide beretik jarraitu du Elkargoko Jubilatuen batzordekidea den Ramón San Sebastián doktoreak abiatutako hitzaldi-zikloak. Une honetan Ander Letamendia batzordekideak hartu du egitasmoaren zuzendaritza, bere karguari dagokionez. 2019an hitzaldi hauek eskaini ziren:


- Urtarrilak 31: Miguel Servet: Zirkulazio txikia. Teologia lezio bat. Enrique Samaniego Dk.
- Martxoak 28: Elkano eta eskorbutoa. Historiaren beste paradigma bat? Fernando Txueka Dk.
- Maiatzak 30: XXI. Mendeko bioteknologia: Gizaki berri baterantz. Genomaren eta garunaren manipulazioa. Gurutz Linazasoro Dk.
- Urriak 31: Donostiako osasun zentroek mende bete. Manuel Solórzano.
- Azaroak 28: Heziketa afektibo-sexuala zine-man. D. Pedro Gorrotxategi Dk.
- Abenduak 13: Zarzuelaren hastapenak. Carlos Benito Dk.

MUSIKA EMANALDIAK

2019. urtean zehar ere azken urteotan Carlos Benito Dk.aren eta Donostia Musikaren eskutik hain ohizkoak bihurtu diren musika emanaldiak eskaintzen jarraitu zen. Obra hauek eskaini ziren:

- 2019/01/08: Onegin Ballet; TCHAIKOVSKYren musika
- 2019/02/29: KAUFMANN Gaur italiar bat
- 2019/02/12: EUROPA KONZERT 2018 Beethoven - Wagner

- 2019/03/04: WALDBÜHNE Simon Rattle-i agurra
- 2019/03/26: VIVALDI Orlando haserre
- 2019/04/02: CHUECA Ura, azukre koxkorrak eta aguardienta
- 2019/05/07: Ballet, Beatrix Potter-en ipuinak
- 2019/05/28: ADAM Kortsarioa (Ballet)
- 2019/06/11: BILLY ELLIOT (Musikala)
- 2019/10/09: ROSSINI Il Comte Ory
- 2019/11/06: BARBIERI Lavapieseko bizargina
- 2019/11/20: BERLIOZ heriotzaren 150. urteurrena
- 2019/12/04: FAMILIA STRAUSS (baltsak, polkak...)
- 2019/12/18: TCHAIKOVSKY Kraskagailua



BESTE EKINTZA BATZUK

Zinema Medikoari buruzko Nazioarteko Jardunaldiak, Pedro Gorrotxategi doktorearen eskutik

Donostiako Zinema Medikoari buruzko Jardunaldiak 1968an sortu ziren, hiriko Nazioarteko Zinemaldiarekin lotutako kultur jarduera gisa, baina laster lortu zuen izaera autonomoa. Donostiako mediku talde batek bultzatutako jarduera izan zen, zineman medikuntzako profesionalen, ikasleen eta Donostiako beste osasun-langile batzuen prestakuntza hobetzeko modu bat ikusi baitzuten. Hori guztia Pedro Gorrotxategi doktoreak bildu du liburu batean, eta bertan Medikuen Elkargoaren Fundazioak parte hartu du.



Pedro Gorrotxategi Dk. liburuaren aurkezpenean.

"El peso, ¿por fin, mi amigo! Silvia Zuluaga Dk-ren eskutik

Silvia Zuluaga doktoreak bere bigarren liburua aurkeztu zuen Elkargoan: "El peso, ¿por fin, mi amigo! Las claves para adelgazar y mantenerse", izenburua darama eta dietarekin batera doazen mitoak kanporatzea eta arreta fokoa janaritik eta ariketa fisikotik kanpo zuzentzea helburu duen eskuliburua.



Silvia Zuluaga Dk-k bere bigarren liburua aurkeztu zuen.

Zainketa Aringarrien Eguna

Elkargoaren 120. urteurrenaren barruan, eta "Medikuntza gizatiarrago baterantz" kanpainaren barruan, Elkargoak Zainketa Aringarrien Eguna ospatu zuen urriaren 14an, hainbat hitzaldi emanaz zainketa aringarriari eta haien egungo egoerari buruz, enpatiaren garrantziari buruz, minaren eta sufrimenduaren aurreko jarrerari



Urriaren 14a Elkargoak hartu zituen Zainketa Aringarrien eguneko jarduerak; hainbat hitzaldi izan ziren zainketa aringarrien eta honen inguruko egoeraren inguruan.

buruz, Nanofotonikaren aurrerapenei buruz edo gaixoen eskubideei buruz.

Zainketa Aringarrien Munduko Egunak, alde batetik, zainketa aringarrien egoera bertatik bertara ezagutzeko eta ebaluatzeko balio izan zuen, baita ulertzeko ere zeinen garrantzitsua den euren zeregina gaixotasun larriekin edo bizi-kalitatea eritasunen ondorioz nabarmen kaltetua duten pertsonen sufrimendua arintzeko orduan. Bigarrenik, hainbat hizlariren laguntzaz, honako gai hauek jorratu ziren: enpatia, gaixoaren beharrak hobeto ulertzeko funtsezko elementua; errukia eta minaren eta sufrimenduaren aurrean nola jokatu; nanofotonikak minbizian dituen aukera nabarmenak; eta gaixoen eta haien familien eskubideak.

BESTE EKINTZA BATZUK

Gaixoaren Segurtasunerako Elkargoko Komitea sortzea

Batzorde hau sortzeko ideia 2018an hasi zen mamitzen, Gobernu Batzordearen ekimenez, elkargokideari zerbitzu bat gehiago emateko eta, batez ere, profesional bakoitzak bere batzordea sortu behar izatea saihesteko.

2019an, azkenik, batzordea sortu zen. Orduetik, kontsulta pribatua duten eta pazientearen segurtasun-batzorde propioirik ez duten elkargokideak Elkargoko Komitea atxiki ahal izango dira.

Pazientearen Segurtasunerako Elkargo Batzorde hau bereziki interesgarria da pazientearen Segurtasun Batzorde propioirik ez duten eta halakorik sortzeko asmorik ez duten ariketa



Errezeta pribatuak faltsutzea saihesten duen sistema berriaren aurkezpen ekitaldia.

privatuko medikuentzat. Beraz, Osakidetzan lan egiten duten medikuek edo dagoeneko batzorde propioa duten zentro batean lan egiten dutenek ez dute atxiki beharrik.

Errezeta pribatuak faltsutzea saihesten duen sistema martxan jartzea

Uztailean jarri zen martxan Gipuzkoan erreze-
ta pribatuak paperezko euskarrian balidatzeko
sistema berria. Medikuek, Farmazialari, Dentista
eta Podologoek Kontseilu Orokorrek elkarrekin
abiatutako ekimen horrek errezeta pribatuaren
autentikotasuna bermatzen du, errezeta horiek
faltsutzea saihestuz bide batez. Errezeta pribatu-
aren izaera ofizial eta sanitarioa berrestea,
errezeta bera erabiliz botikak behin eta berriz
banatzea ezinezkoa bihurtzea, abusuzko edo
maulazko jarduketak posibleen aurkako defentsa
sendotzea eta pazienteei segurtasun handiagoa
eskaintzea izango lirateke martxan jarritako bali-

dazio-sistemak dituen abantailen artean nabar-
mentzekoak.

Sistema berriaren aurkezpeneko ekitaldia
Gipuzkoako Sendagileen Elkargo Ofizialaren
egoitzan egin zen, eta bertan honako hauek
hartu zuten parte: Iñaki Betolaza Euskal Herriko
Farmaziako zuzendari nagusiak; Serafín Rome-
ro Sendagileen Elkargoen Kontseilu Orokorre-
ko lehendakariak; Jesús Aguilar Farmazialarien
Elkargoen Kontseilu Orokorreko lehendaka-
riak; Francisco José García Dentisten Kontseilu
Orokorreko lehendakariordeak eta Rafael Nava-
rro Podologoek Kontseilu Orokorreko idazkari
nagusiak.

Aurrekoez gain, ekitaldian izan ziren baita
ere Manuel García Bengoechea, Miguel Angel
Gastelurrutia, eta Tomás Gastaminza Lasarte,
Gipuzkoako Sendagileen, Farmazialarien eta
Dentisten Elkargo Ofizialetako lehendakariak,
hurrenez hurren, eta Álvaro Díaz Suarez, Euskal
Herriko Podologoek Elkargoko lehendakaria.

HITZARMENAK BESTE ERAKUNDE BATZUEKIN



AMArekiko harremana

Elkargoak eta osasun-arloko profesionalen mutua den AMA aseguru-etxeak, lankidetzaren estuan dihardute Elkargoaren hainbat proiektutan. Mutua horrek elkargokideei eskaintzen dizkien estaldurez gain, bera da Fundazioaren patronorik handiena, eta bere urteko ekarpena laguntza bikaina gertatzen da elkargokideentzako antolatutako doako trebakuntzako ikastaro guztiak eta Fundazioaren sariak finantzatzeko. Era berean, ekarpen bereziak ere egiten ditu aparteko hainbat ekitaldi direla medio, esate baterako Elkargoak egin ohi duen Eguberritako Festa antolatzeko.



BANKOArekiko harremana

Elkargoak Donostiako Bankoia banketxearekin duen harremana duela urte asko abiatu zen, eta denborak aurrera egin ahala harreman hori finkatuz eta sendotuz joan da. Elkargoaren banku-erakundea izateaz gainera, Bankoak ondo baino hobeto ezagutzen ditu Elkargoan aurrera daramatzagun proiektuak, eta horregatik Fundazioaren patronoa ere bada, urtero diru-kopuru bat bideratuz babesletza horretarako. Areago,

Bankoak finantza-produktu eskusiboak eskaintzen dizkie Gipuzkoako elkargokideei eta beraiei familiartekoei, abantaila nabarmenekin, Elkargoarekin aspalditxotik ezarria daukan lankidetzarako akordioari eta harreman estuari esker.

2019AN SINATUTAKO HITZARMENAK

COMGI eta PALIATIVOS SIN FRONTERAS

Elkargoak lankidetzaren hitzarmena sinatu zuen apirilaren 1ean Paliativos sin Fronteras GKEarekin, zainketa aringarriekin lotutako jarduerak zabaltzeko eta sustatzeko; halaber, hitzarmen honen harira, Elkargoaren Fundazioak garatzen dituen jardueren esparruan, gizartearentzat, oro har, eta kolektibo medikoarentzat bereziki, interesgarriak diren gaiei buruz tailerrak eta eztaba-ida-mahaiak antolatzeak konpromisoa hartu zen. Hitzarmena Elkargoko presidente Manuel García Bengoechea eta Paliativos Sin Fronteras elkarte-ko presidente Wilson Astudillok sinatu zuten.



Wilson Astudillo eta Manuel García Bengoechea.

COMGI eta AECC

Gipuzkoako Sendagileen Elkargoak eta AECC Gipuzkoak lankidetzahitzarmena sinatu zuten 2019an, minbiziaren aurkako borrokan harremanak estutzeko. Hitzarmen honen harira elkarrekin hainbat jarduera antolatuko dituzte bi erakundeek, hala nola adituekin hitzaldiak edo prestakuntza-jarduerak, sendagileentzat ez ezik, herritarrentzat ere interesekoak izan daitezkeenak. Bestalde, Elkargoak konpromisoa hartu du bere kolektiboan AECC Gipuzkoak egiten dituen jardueren eta proiektuen berri emateko, eta elkargokideak animatu ditu horietan parte hartzera eta erakunde horrek egiten duen lana eza-gutzeria. Akordioa Manuel Garcia Bengoechea doktoreak, Gipuzkoako Medikuen Elkargoko presidenteak, eta Juan Manuel Ormazabal AECC Gipuzkoako presidenteak sinatu zuten.

COMGI eta IMQ

Elkargoak berritu egin du 2019an IMQrekin sinatutako akordioa, elkargokideei aukera ematen diena aseguru-etxeak eskaintako mediku-aseguruetan baldintza eskusiboak izateko. Hitzarmen horri esker, osasun-estaldura ematen zaie 70 urtera arteko mediku-profesionalei. Normalean, osasun-aseguruetatik kanpo egon ohi da tarte hori, ez hala IMQren kasuan.



Manuel Garcia Bengoechea eta Juan Manuel Ormazabal.



Elkargoaren eta IMQren arteko hitzarmenaren sinadura ekitaldia.

ELKARGOA, ZUGANDIK HURBIL

www.comgi.eus



@comgipuzkoa



@comgipuzkoa



www.facebook.com/colgioelkargoa



<https://www.linkedin.com/company/10040220/admin/>



https://www.youtube.com/channel/UC_em_xnZpRCjVKVoAmWj17Q

FUNDAZIOA

MEMORIA 2019

IDAZKARITZA

fundacion@comgi.eus

www.comgi.eus



Fundazioa

GIPUZKOAKO SENDAGILEEN ELKARGO OFIZIALA
COLEGIO OFICIAL DE MÉDICOS DE GIPUZKOA

AURKEZPENA

Fundazioa irabazi-asmorik gabeko antolakundea da, eta 2011. urtean sortu zen Elkargoaren ekimenez. Elkargoaz kanpoko bi patronoren (AMAre eta BANKOAre) ekarpenei esker finantzatzen da bere osotasunean.



Helburuak

Fundazioak hainbat alderdi jorratzen ditu bere izaeragatik: ongintza, asistentzia, osasungintza eta heziketa, bere onuradunen, alegia Gipuzkoa-ko mediku elkargokideen premia eta beharrian berehalakoenak eta oinarritzkoenak asetzera bideratuta betiere.

Zehazkiago esateko, hauek dira bere helburuak:

- Mediku elkargokide guztiei zuzendutako trebakuntzako jarduerak sustatu, kudeatu eta koordinatzea gure lurraldean.
- Gizarte-laguntza sustatu, bideratu, bultzatu eta finantzatzea. Horretarako, dohaintzak eta diru-laguntzak ematen zaizkie medikuen alargunei eta seme-alabei, eta bekak eta laguntzak eskaintzen zaizkie medikuei nahiz medikuen umezurtzei.
- Osasun-gaietan trebakuntza eta informazioa zabaltzeko aukeran dauzkagun baliabide eta ezagutza guztiak herritarren eskura jartzea.

Egitura

2018ko ekainean, eta Elkargoan izandako hauteskundeekin batera, Fundazioak bere egitura berritu zuen, eta orduz geroztik era honetan dago egituratua:

PRESIDENTEA: Ignacio Eizaguirre Sexmilo Jn.

PRESIDENTEORDEA: María Belén López Rubio And.

IDAZKARIA: Belén Alonso Macías And.

DIRUZAINA: Victoriano Irigoyen Murua Jn..

BATZORDEKIDEA: María Aranzazu Elicegui Sarobe And.

BATZORDEKIDEA: Carol Julyssa Cobian Malaver And.

BATZORDEKIDEA: Jose Javier Korta Murua Jn..

PRESIDENTEAREN AGURRA

2019. URTEAN FUNDAZIOAK AUERRERAPAUZO HANDIAK EMAN DITU 2018. URTEAREKIN ALDERATUZ GERO. HORRELA, IAZKO AURREZ AURREKO 17 IKASTAROETATIK AURTENGO 28RA PASATU GARA, GEHI BESTE ONLINE IKASTARO BAT (+% 76), IZENA EMANDAKO 750 PERTSONATIK 1.454RA (+% 94) ETA AURREZ AURREKO 83 IRAKASTORDUETATIK 194 ORDURA (+% 134).



Ignacio Eizaguirre
Sexmilo Jr.

Lankidetzara bideratutako laguntzei eutsi diegu, jasotako 19 eskarietatik aurtun diru-laguntzarik 8 proiekturi besterik eman ezbadiegu ere. Iaz, al-diz, jasotako eskaera guztiak bete ahal izan genituen Donostia Ospitaleko Medikuen Elkarte Profesionala zenarengandik jasotako dohaintzari esker.

Ikerteta bultzatzen jarraitzen dugu, bi medikuek egun-erdiko lana jarduera asistentzialetik askatu eta Biodonostian ikerketara bideratu ahal izan dezaten. Eta horrez gain, Gradu Amaierako Euskarazko lanik onenaren saria, Medikuntza Fakultateko Donostiako Irakaskuntza Unitatean Ikasketa Espedienterik onenaren saria, Doktorego Tesi onenaren saria, argitaratutako lanik onenaren saria eta Batzar batean aurkeztutako komunikaziorik onenaren saria banatu ditugu.

Hori guztia Ortzi Balda, Fundazioaren koordinatzaileak eta Iratxe Urreta aholkulari medikoak egindako lan bikainaren emaitza izan da, El-kargoko bulegoan diharduten langileen ezinbesteko laguntzarekin betie-re.

2020. urterako ezarritako helburuen artean, nagusia aipatzearen, biztanleria orokorrari zuzendutako Osasun Heziketako Ikasgelak sustatu nahi genituzke, profesionalak ez direnentzat osasun-arloko ezagutzak he-datzeko asmoarekin batik bat.

Egunetik egunera on-line ikastaro gehiago eskaini nahi ditugu, iaz egindakoak izan zuen arrakasta ikusita, euskaraz emandako ikastaroak martxan jarri eta trebakuntzako zenbait jarduera probintzia osora zabal-du, Donostiatik kanpo bizi diren elkargokideek joan-etorri handirik egin behar izan ez dezaten.


Eta, noski, elkargokideen artean trebakuntzako jardueren inguruan sor daitezkeen ideia eta proposamenak jasotzeko gogoz gaude, ziur bai-kaude eskaera horiek guztiak asetzeko ahal dugun guztia egingo dugula, geure ahalbideen mailan.

JARDUERAK

AURREZ AURREKO IKASTAROAK

Elkargoko Fundaziotik antolatzen dira Gipuzkoako Sendagileen Elkargoak martxan jarritako trebakuntzako ikastaro gehienak. Eta tailer praktiko bat (Kirurgia txikiko tailerra hain zuzen ere) albo batera utziz gero, gainerako guztiak doakoak izan dira elkargokideentzat, eta gehientsuenak Eusko Jaurlaritzak akreditatu ditu. Berrikuntza gisa, 2019. urtean jarri zen martxan aurreneko online ikastaroa.

2019KO DATUAK





ELKARGOKIDEEN TRABA KUNTZA

ELEKTROKARDIOGRAFIA KLINIKOA

Ikastaroaren arduraduna: Félix Zubia Dk.
Hizlariak: Tayda Alvaríño Dk., María Pascal Dk., Iker García Dk., Nagore Gonzalez Dk. eta Felix Zubia Dk.
Egunak: urtarrilak 14, 15, 16, 17 eta 18
Arratsaldeko txanda
E.J.ren kredituak: 1.5
Izena emandakoen kopurua: 109
Parte-hartzaileak: %88

KOMUNIKAZIO ERAGINKORRA (I) BAME MEDIKUENTZAT

Ikastaroaren arduraduna eta hizlaria: Iñigo Gastesi
Egunak: Otsailak 12, 19 eta 26
Arratsaldeko txanda
Izena emandakoen kopurua: 14
Parte-hartzaileak: %100

ERREFERENTZIA-KUDEATZAILEEN TAILERRA

Ikastaroaren arduradunak eta hizlariak: Eukene Ansuategi eta Marimar Ubeda
Eguna: otsailak 14
Goizeko eta arratsaldeko txanda
E.J.ren kredituak: 0.4
Izena emandakoen kopurua: 7 goizez / 24 arratsaldez
Parte-hartzaileak: %100 goizez / %96 arratsaldez

TORAX-eko RX INTERPRETAZIOKO OINARRIZKO IKASTAROA

Ikastaroaren arduraduna: Miguel Mendoza Dk.
Hizlariak: Ainhoa Galardi Dk. eta Miguel Mendoza Dk.
Egunak: otsailaren 18, 19, 20 eta 21
Arratsaldeko txanda
E.J.ren kredituak: 0.7

Izena emandakoen kopurua: 38
Parte-hartzaileak: %89

KOMUNIKAZIO TREBEZIAK LANTZEN EGUNEROKOAN

Ikastaroaren arduraduna eta hizlaria: Iñigo Gastesi
Eguna: otsailak 27
E.J.ren kredituak: 0.5
Izena emandakoen kopurua: 45
Parte-hartzaileak: %89

MINDFULNESS ETA EMOZIOAK OSASUN-TESTUINGURUAN

Ikastaroaren arduraduna eta hizlaria: Andrés Pomares Dk.
Egunak: martxoak 2, 16 eta 23
Goizeko txanda
E.J.ren kredituak: 1.9
Izena emandakoen kopurua: 61
Parte-hartzaileak: %77

OSASUN-DATUEN ANALISIARI BURUZKO OINARRIZKO TAILERRA

Ikastaroaren arduraduna eta hizlaria: Mayte Iglesias
Egunak: martxoak 4, 6, 7, 11, 13 eta 14
Arratsaldeko txanda
E.J.ren kredituak: 3.1
Izena emandakoen kopurua: 12
Parte-hartzaileak: %100

PEDIATRIAKO LARRIALDIAK: ZER EGIN / ZER EZ EGIN

Ikastaroaren arduraduna: Eider Oñate Dk.
Hizlariak: Cristina Calvo Dk., José Ángel Muñoz Dk., Nuria Chaves Dk. eta Eider Oñate Dk.
Eguna: martxoak 21
Goizeko txanda
Izena emandakoen kopurua: 51
Parte-hartzaileak: % 96



ALBISTE TXARREN KOMUNIKAZIOA HOBETZEKO TAILERRA

Ikastaroaren arduraduna eta hizlaria:
Juan Carlos Arbonies Dk.
Eguna: apirilak 8, 9 eta 10
Arratsaldeko txanda
E.J.ren kredituak: 1.2
Izena emandakoen kopurua: 26
Parte-hartzaileak: % 92

INDARKERIA EGOERAK KUDEATZEKO TAILERRA

Ikastaroaren arduraduna: José Ángel Riau
Hizlariak: Andrea Azkune y José Ángel Riau
Eguna: maiatzak 4, 11 eta 25
Goizeko txanda
Izena emandakoen kopurua: 29
Parte-hartzaileak: %76

KIRURGIA TXIKIKO TAILERRA

Ikastaroaren arduraduna:
Osatzen-Familia eta Komunitate Medikuntzako
Euskal Elkartearen kirurgia txikiko taldea
Hizlariak: Maite Unzurrunzaga Dk., Begoña
Catania Dk., Iñaki Intxausti Dk., Arantza
Etxebarria Dk., Patxi Dávila Dk. eta M^a José
Ibars Dk.
Eguna: maiatzak 14 eta 15
Goizeko eta arratsaldeko txanda
E.J.ren kredituak: 0.5
Izena emandakoen kopurua: 24 goizez / 24
arratsaldez
Parte-hartzaileak: %100 goizez / %100
arratsaldez

MEDIKUENTZAKO FINANTZA HEZIKETA TAILERRA

Ikastaroaren arduraduna eta hizlaria:
European Financial Planning Association
(EFPA)
Eguna: maiatzak 20, 21 eta 22
Arratsaldeko txanda
Izena emandakoen kopurua: 19
Parte-hartzaileak: %100

PEDIATRIAKO TXERTOAK: GALDETZEN AUSARTZEN EZ ZAREN GUZTIA

Ikastaroaren arduraduna: Eider Oñate Dk.
Hizlaria: Javier Arístegui Dk., Santiago Mintegi
Dk., Javier Álvarez Dk. eta Eider Oñate Dk.
Moderatzailea: Javier Korta Dk.
Eguna: maiatzak 31
Arratsaldeko txanda
Izena emandakoen kopurua: 36
Parte-hartzaileak: %92

BIZITZAREN AMAIERA, MUGAKETA TERAPEUTIKOA ETA EUTANASIA. IKUSPEGI BIOETIKOTIK BEGIRATUTA.

Ikastaroaren arduraduna: Blanca Morera Dk.
Hizlariak: Blanca Morera Dk. eta Leopoldo
Diez de Fortuny.
Eguna: ekainak 3 eta 5
Arratsaldeko txanda
E.J.ren kredituak: 0.6
Izena emandakoen kopurua: 40
Parte-hartzaileak: %90

**TRAUMA ETA BERRERAIKITZE-KIRURGIA
GAZAN "GORPUAK BERRERAIKITZEA,
BIZITZA BERRABIAZTEA"**

Ikastaroaren arduraduna: Nagore Eskisabel,
Mugari Gabeko Medikuakeko ipar zonaldeko
arduraduna.

Hizlariak: Aloña Zubizarreta eta Higinio
Ayala Dk.

Eguna: ekainak 6

Arratsaldeko txanda

E.J.ren kredituak: 0.5

Izena emandakoen kopurua: 12

Parte-hartzaileak: %92

JARDUERA MEDIKOA KIROL EKINTZETAN

Ikastaroaren arduradunak eta hizlariak:
Iñaki Arratibel Dk., Felix Zubia Dk., Haritz Esnal
Dk. eta Maite Urcelay Dk.

Egunak: ekainak 17, 18, 19 eta 20

Arratsaldeko txanda

E.J.ren kredituak: 1.8

Izena emandakoen kopurua: 16

Parte-hartzaileak: %94

**LARRIALDI HUMANITARIOEI ERANTZUTEKO
TAILERRA**

Ikastaroaren arduraduna eta hizlaria:

Cooperativa Humanitaria

Eguna: urriak 1 eta 2

Arratsaldeko txanda

E.J.ren kredituak: 0.8

Izena emandakoen kopurua: 20

Parte-hartzaileak: %72

NEFROLOGIARI BURUZKO EGUNERAKETAK

Ikastaroaren arduraduna: María Teresa

Rodrigo de Tomas Dk.

Hizlariak: María Teresa Rodrigo de Tomas Dk.,
María Cinta Aguilar Cervera Dk. eta Amaia Ros
Abando Dk.

Eguna: urriak 21, 22, 23 eta 24

Arratsaldeko txanda

E.J.ren kredituak: 1.0

Izena emandakoen kopurua: 80

Parte-hartzaileak: %71

**ELIKADURA OSASUNGARRIKO TAILERRA:
ETIKETATZE-IRAKURKETA**

Ikastaroaren arduraduna eta hizlaria: María
Eugenia Goenaga Dk.

Eguna: azaroak 5

Goizeko eta arratsaldeko txanda

E.J.ren kredituak: 0.5

Izena emandakoen kopurua: 15 goizez / 39
arratsaldez

Parte-hartzaileak: %79 goizez / %88 arratsaldez

**KOMUNIKAZIO ERAGINKORRA TAILERRA
BAME-1 MEDIKUENTZAT**

Ikastaroaren arduraduna eta hizlaria:

Iñigo Gastesi

Eguna: azaroak 19 eta 26 eta abenduak 3

Arratsaldeko txanda

Izena emandakoen kopurua: 12

Parte-hartzaileak: %92

**OSASUN FISIKOA GAIXOTASUN MENTAL
LARRIA DUTEN PERTSONETAN**

Hizlariak: Gipuzkoako Osasun Mentaleko Sareko
Cristina Erasquin Dk., Ana Isabel Hernández Dk.
eta Ana Landa Dk.

Egunak: abenduak 11 arratsaldeko txandan eta

abenduak 12 goizeko txandan

Izena emandakoen kopurua: 12 goizez / 12
arratsaldez

Parte-hartzaileak: %82 goizez / %82 arratsaldez

TUTOREENTZAKO IKASTAROAK

**EGOERA ZAILAK MEDIKU EGOILIARREKIN.
TUTORETZATIK MANEIAITZEA**

Ikastaroaren arduraduna eta hizlaria:

Juan Carlos Arbonies Dk.

Eguna: urtarrilak 24

Arratsaldeko txanda

Izena emandakoen kopurua: 20

Parte-hartzaileak: %85

IKERKETA BEKAK

Profesional medikoen ikerketa sustatu eta errazteko asmoarekin, Fundazioak lankidetzako akordio bat dauka sinatua Biodonostia

Osasun Ikerketako Institutuarekin, ikerketako hainbat proiektu martxan jartzen laguntzeko. Proiektu horiek bertako elkargokideen parte-hartzearekin eramaten dira aurrera. Eta Fundazioak, zehazki esateko, egun-erdiko lana ikerketa horietara bideratuko duten bi medikuren liberazioaren kostu finantzarioa hartzen du bere gain.

2019ko urte honetan Altzako Osasun Zentroko Carolina Güel Pelayo Dk., Familia Medikuntzako espezialista, eta Donostia Unibertsitate Ospitaleko Cristina Irigoyen Laborra Dk., oftalmologoa, izan dira liberazio hori erdietsi duten medikuak.

biodonostia

osasun ikerketa institutua
instituto de investigación sanitaria

FUNDAZIOAREN SARIAK

Gipuzkoako Sendagileen Elkargoko Fundazioak ekainaren 12an banatu zituen 2019. urteari zegozkion bere Sariak, profesional medikoek trebakuntzan, zabalkundean eta ikerketan aurrera daramaten esfortzu eta dedikazio etengabea aitortu eta eskertzeko asmoarekin.

Sari horiek elkargokide gazteei egin ohi zaien ongietorri-ekitaldian banatu ziren, Unibertsitatean urte luzez ikasi eta BAME azterketa presta-

tzen beste urtebete eman ondoren, Gipuzkoako ospitale eta osasun-zentro ezberdinetan euren egoiliar-aldiari hasiera eman behar diotenean hain zuzen ere.

Ekitaldian Itsaso Martí neurologo eta pediatriak eta Fermín Moreno neurologoak ere hartu zuten parte, bi doktore horiei eman baitzitzaizkien Biodonostiarekin batera sinatutako hitzarmenari esker Elkargoak banatzen dituen ikerketarako bekak.

Hauek izan ziren 2019ko sariak eta sarituak:



IGNACIO MARÍA BARRIOLA DK. IV. SARIA, 2017KO DOKTOREGO-TESI ONENARENATZAT

- **Lana:** Estudio epidemiológico clínico y molecular de la Retinosis Pigmentaria en Gipuzkoa.
- **Sariduna:** Cristina Irigoyen Laborra Dk.

2019ko saridunak: Jon Zabaleta, Cristina Irigoyen, Ane Arrondo, Amaia Leunda eta Gorka Fernández.

PILAR LOIS DK. IV. SARIA, ALDIZKARI MEDIKO BATEAN ARGITARATUTAKO ARTIKULU ZIENTIFIKO ONENARENTZAT

- **Lana:** Individual data meta-analysis for the study of survival after pulmonary metastasectomy in colorectal cancer patients: A history of resected liver metastases worsens the prognosis.
- **Sariduna:** Jon Zabaleta Jimenez Dk.

GARBIÑE OTHOA DK. IV. SARIA, BARNEKO MEDIKU EGOILIARREK AURKEZTUTAKO POSTER EDO AHOZKO KOMUNIKAZIO ONENARENTZAT

- **Lana:** Alteraciones del metabolismo lipídico conforman biomarcadores séricos de enfermedad en la Esclerosis Lateral Amiotrófica.
- **Sariduna:** Gorka Fernández García de Eulate Dk.

MIGUEL ECHENIQUE DK. IV. SARIA, UNIBERTSITATEKO IKASKETA ESPEDIENTE ONENARENTZAT

- **Sariduna:** Ane Arrondo Esnaola Dk.

JOSE DE BEGIRISTAIN DK. SARIA, AL MEJOR TRABAJO DE FIN DE GRADUACIÓN EN EUSKERA

- **Lana:** Kawasaki gaixotasunaren klinika eta morbiditatea pediatrian.
- **Sariduna:** Amaia Leunda Prieto Dk.

LANKIDETZA BULEGOA

Fundazioaren Lankidetzako Bulegotik deialdi bat egiten da urtero, geure elkargokideek parte hartzen duten Gobernu Kanpoko Erakundeek (GKEek) aurrera daramatzaten nazioarteko lankidetzako proiektuei diruz laguntzeko.

Lankidetzari jardunaldi berezi bat eskaintzea erabaki dute behin berriz Fundazioak eta Elkargoak, eta horregatik Elkargoko Fundazioaren presidentea, Iñaki Eizaguirre Dk., lankidetzako batzordekidea, Carmen Solórzano Dk., eta Medikuko Elkargoen Erakundeak Nazioarteko Lankidetzarako duen Fundazioaren koordinatzaile teknikoa, Sonia Agudo ere izan ziren bertan.

Urriaren 16an egindako lankidetzajardunaldi honetan aukera izan genuen iazko urtean diru-laguntzei esker aurrera eramandako 3 proiektu gertutik ezagutzeko. Aurreneko proiektua Itxaropenaren Irrifarrea izeneko erakundearena izan zen, eta Angel Emparanza Dk.ak aurkeztu zuen *Burkina Faso eta Boli Kosta lurraldeetan nomaren sekuelak dituzten pazienteen tratamendua* izenburuarekin.

Jarraian Itsasoko Salbamendu Humanitarioa erakundearen lana hurbilagotik ezagutzeko aukera izan genuen, Gloria de la Parra Dk.aren eskutik, *Chios-en burututako osasun-asistentziako egitasmoa* aukeztu baitzigun.

Azkeneko proiektua UTOMI Elkarteko Ana Fuentes Dk.ak aurkeztu zuen, honako izenburu honekin: *Kontakizuna. Afrikako baliabide gutxiko herrialdeetan (Mozambike) GIBaren egoera ezagutu eta horretaz kontzientizatzea*.

Aurten inoiz baino proiektu gehiago aurkeztu dira Gipuzkoako deialdira: 19 proiektu izan dira guztira, 17 erakunderen eskutik bideratuak. Egitasmo horietatik, 8 proiektuk lortu dute



Fundazioaren presidentea eta lankidetzak-idea, laguntzak jaso zituzten erakundeen ordezkariak.

laguntza ekonomikoa, 17.000 euroko zenbatekoa osatzeraino. Lankidetzako diru-laguntza horiek Elkargoko Fundazioak deitu eta banatzen ditu, A.M.A eta Bankoa patronoren laguntzari esker.

2019. URTEAN DIRUZ LAGUNDU DIREN PROIEKTUAK

GKE: DENOK OSASUNAREN ALDE – TODOS POR LA SALUD (D.O.A.)

- **Proiektua:** Laguntza-, prestakuntza- eta trebakuntza-arloan osasun-sistema indartzeko eta lankidetzan aritzeko programa. Guatemala 2019.
- **Arduraduna:** Juan José Martínez Rodríguez Dk.
- **Emandako diru-laguntza:** 2.000€

GKE: KELLE HERRIALDEAN OSASUNA SUSTATZEKO ELKARTEA

- **Proiektua:** Kelle herrialdean (Senegal) osasuna sustatzeko elkarte.
- **Arduraduna:** Juan Querejeta Usabiaga Dk.
- **Emandako diru-laguntza:** 2.000€

GKE: FUNDACIÓN MUNDUBAT - MUNDUBAT FUNDAZIOA (D.O.A.)

- **Proiektua:** Osasun-egiturari laguntzea Auserdeko wilaiaiko lehen mailako arretan, Tindoufeko (Aljeria) errefuxiatu sahararren kanpamentuetan.
- **Arduraduna:** Jose Luis Paulín Seijas Dk.
- **Emandako diru-laguntza:** 2.000€

GKE: ABAY, NILO AZUL, ASOCIACIÓN PARA EL DESARROLLO DE ETIOPÍA

- **Proiektua:** Desnutrizioa duten bularreko umeentzako elikadura-euskarria Gaba Kemisan, Walmara. Etiopia. ❶
- **Arduraduna:** Inge Etxabe Azkue Dk.
- **Emandako diru-laguntza:** 2.000€

GKE: MEDICUS MUNDI

- **Proiektua:** Osasun-arreta duina, kalitatezkoa eta barneratzailea ematea Ahmednagar barrutiko populazio kalteberenei eta babesgabeen, Maharashtra estatuan, Indian. ❷
- **Arduraduna:** Inmaculada Vila Mendiburu Dk.
- **Emandako diru-laguntza:** 2.000€

GKE: FUNDACIÓN LA VALMUZA

- **Proiektua:** Umetoki-lepoko minbiziaren prebentzioa eta kontrola Huehuetenangoko (Guatemala) komunitate Mayatan.
- **Arduraduna:** Teresa Solaun Abrisqueta Dk.
- **Emandako diru-laguntza:** 2.500€

GKE: FUNDACIÓN VICENTE FERRER

- **Proiektua:** Desgaitasun fisikoa edo mugikortasun murriztua duten pertsonen bizi-kalitatea eta gizarteratzea hobetzea Anantapur eta Kurnool barrutietan, Indian. ❸
- **Arduraduna:** M. Dolores Baixas de Ros Dk.
- **Emandako diru-laguntza:** 2.000€

GKE: O.D.M / MUNDUKO BEGIAK

- **Proiektua:** Mopti eskualdeko (Mali) giza baliabide sanitarioek begi-osasunean dituzten gaitasunak indartzea.
- **Arduraduna:** Nagore Arbelaiz Pascual Dk.
- **Emandako diru-laguntza:** 2.500€



ETORKIZUNEKO ERROKAK

Aurreneko online ikastaroaren deialdiak izandako arrakasta ikusita, **online moduko ikastaroak edo ez erabat presentzialak**, bederen, bultzatzen jarraitzea, gai mediko desberdinen inguruko trebakuntza edo eguneratzea modu malguagoan ahalbidetzeko.

- Zuzen-zuzenean medikuntzarekin lotuak egon ez arren, osasun-profesionalentzat interesgarriak gerta daitezkeen gaien inguruko **zeharkako trebakuntza** eskaintzea, beste helburu batzuen artean medikuaren eta pazientearen arteko harremana indartu eta sendotzeko baliagarriak badira bereziki.
- **Goiz eta arratsaldeko txandetan** emango diren ikastaroen eskaintza hobetzea, profesional bakoitzak bere lan-ordutegiaren arabera eskaintza hori errazago baliatu ahal izan dezan.
- Trebakuntzako jarduera batzuk **Elkargoaren Donostiako egoitzatik kanpora eskaintzea**, probintzia osoko elkargokideen trebakuntza errazteko.
- Gizartearen hainbat kolektibori bideratutako **Osasun Heziketako Ikasgelak** bultzatzen jarraitzea, **jarduera berrien bitartez**.

